

LAN ARRISKUEN PREBENTZIOARI

buruzko Mutualiaren

17. argazki lehiaketa



Lehiaketaren oinarriak

Mutualiaren Prebentzio-aholkularitzak, LANEKO ARRISKUEI BURUZKO MUTUALIAREN 17. ARGAZKI LEHIAKETA abian jarri du. Lehiaketak, bere balio artistikoagatik bai prebentzioaren egungo egoera islatzeagatik, gizartean segurtasunaren gainera kontzientzia hartzeko eta sentsibilizatzeko lagungarriak gerta daitezkeen argazkien egileak saritu nahi ditu.

Sariak, dirutan, honako hauek dira:

- **Lehen saria:** 1.200 €
- **Bigarren saria:** 900 €
- **Hirugarren saria:** 600 €

Argazkien gaia Laneko Arriskuen Prebentzioa izango da. Argazkian gaiaren ezaugarriak irudikatu beharko dira eta, horretarako, arrisku egoerak edo jardunbide egokiak islatuko dira. Azken horiek balorazio positiboagoa jasoko dute. Irudietan, Estatuko mugen barneko egoera bakarrik agertuko da.

Argazkiek originalak eta parte-hartzaileak eginak izan beharko dute. Ezin izango dira aldeztu aurretik argitaratutako edota beste lehiaketaren batean saritutako argazkiak aurkeztu.

Argazkien formatuari dagokionez:

- Argazkiak formatu digitalean bidaliko dira, ondoko formatukoak bakarrik onartuko direlarik: .jpg eta .bmp
- Argazkiek 20 x 30 cm inguru eta gutxienez 300 ppp-ko bereizmena izan beharko dute. Argazkiak ezingo du 5 Mb baino pixu handiagoa izan.

Argazkiak helarazteko bidali diezaguzu, posta bat honako helbide elektronikora: **prebentzioa@mutualia.eus**. Honako hauek erantsi beharko dira:

- Argazkiaren artxiboa, egilearen izen-abizenak adierazita.
- Gure web orrian aurkitu dezakezun "Deskribapen orria" behar bezala beteta eta egilearen izen-abizenak adierazita.

Argazkiak aurkezteko epea 2020ko martxoaren 31ean amaituko da.

Epaimahaiaren erabakia behin betikoa eta apelaezina izango da, eta 2020ko apirilaren amaiera aldera ezagutaraziko da MUTUALIAREN web orrian.

Har ezazu parte!

Oinarri osoak web gunean aurki ditzakezu:

www.mutualia.eus

Edozer zalantza edo kontsulta izanez gero:

944 042 105 | 943 440 526 | 945 009 077